

III ERANSKINA
KULTUR MEZENASGOARI LOTUTAKO ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENAK

Bat etorri Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 5.1.b artikuluan xedatutakoarekin, deialdi honetan diruz laguntzen diren proiektuak interes sozialekotzat hartuko dira, foru lege horretan aurreikusitako zerga-pizgarrien aplikazioaren ondorioetarako, baldin eta dirulaguntza jasotzen duen pertsonak edo entitateak lege horren 4.f) artikuluan eskatutako baldintzak betetzen baditu.

1.- Adierazi deialdi honetan laguntza eskatu duen proiektuak edo jarduerak interes sozialeko deklarazioari buruzko berariazko ebazpenik ote duen.

- BAI
 EZ

2.- Une honetan interes sozialeko deklaratzeari buruzko berariazko ebazpenik ez badago, adierazi Kultura mezenasgoa arautzen duen 8/2014 Foru Legearen 4.f) artikuluan mezenasgo kulturalaren onuradun den pertsona edo entitatetzat jo ahal izateko eskatutako baldintzak betetzen dituen ala ez.

- EZ
 BAI Ondorio horietarako, honako hau aitortzen dut nire erantzukizunpean:

- Jarduera artistikoak egiten ditut ohikotasunez, 4.f) artikuluan jasotzen den EJZko epigrafe honi loturik _____
- Nire negozio zifraren zenbateko garbia, iaz, ez da 200.000 eurotik gorakoa izan.
- Helbide fiskala Nafarroan dut.

3.- Azkenean, laguntzaren xedeko proiektuak edo jarduerak dirulaguntza eskuratzen badu eta onuraduntzat jotzeko baldintzak betetzen badituzu, adierazi ea nahi duzun diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren publizitatea egitea Nafarroako Gobernuaren web-orrian www.nafarroa.eus

- EZ
 BAI

Baietz erantzun baduzu, adierazi datu hauek:

Pertsonaren edo entitatearen izena

Proiektuaren edo jardueraren titulua

Proiektuaren deskribapen laburra (gehienez ere bost lerro)

Kontu-zenbakia, informazio hori adierazi nahi baduzu

Pertsonaren edo entitatearen harremanetarako datuak

Webgunea, informazio hori adierazi nahi baduzu